astiberri

7 URTETIK AURRERA

PIQO-PIQO ETA INDOTXINAKO TXIPIROI ERRALDOI IZUGARRIA

Gidoia eta Irudiak: **Lucas Ferreyra**
Itzulpena: **Bego Montorio**

Astiberri Ediciones. Bilbo, 2023
Kolorea. Azal gogorra
120 orrialde. 22 x 29,5 cm. 24 euro
Txikiberri bilduma
ISBN: 978-84-18909-81-8

URRIAREN 12AN SALGAI

Lucas Ferreyrak -**"Terry Gilliam grafiko"** bat, Javier Olivares egilearen ustez- **fantasiazko bidaia** egiten du haurtzaroaren mundura, berak osorik sortu duen **lehen lan honetan**

Piqo-Piqo eta haren familia pirataren ezinezko bidaia

Piqo-Piqo gaztearen mundua fantasiazkoa eta magikoa da. Piraten, yetien, minotauroen eta bestelako izaki mitologiko ausarten leinu baten ondorengoa da mutikoa, eta oasi sinestezin bat du jaioterri; han, diamante erraldoiak lurretik sortzen dira, perretxikoen antzera, eta arrokak bizidunak eta jostariak izan ohi dira. Gaur, beste askotan bezala, Piqo-Piqo deskuidatu egin da eskolarako bidean,

ipurtargi lumadun zoragarri bati segika. Gelara iristean sortu duen istripuak maisu erretxinaren pazientzia agorrarazi du, eta etxeko lan ezinezko bat agindu dio hurrengo zientzia-eskolarako: munduaren beste muturrean bizi den elezaharretako olagarro bati hortz bat ateratzea. Lanari ekiteko unea da…

Ferreyra bera uharte batean bizi da, eta abentura zoro bat asmatu du, non pertsonaiak landaretza oparoko ingurunean bizi diren eta ozeano amaigabeak zeharkatzen dituzten. Albumak, bidaia handi bat kontatzeaz gain, bestelako gai batzuk ere jorratzen ditu, hala nola familia, hezkuntza, heldutasuna edota ustekabeko abenturak bizitzera ausartzeko erabaki zail eta korapilatsua. Amaieran, irakaskuntzako profesionalei eskaintzen die liburua egile argentinarrak, gaztetxoekin egiten duten lanaren esker-emate xume gisa.

“Gozamen hutsa da liburu hau. Lucasek irudimen izugarria du, asmatutakoa komikiaren orrialde guzti-guztietan islatzeko duen talentuaren parekoa. Margo ederren eta Ezinezko Uharteko pertsonaia karismatikoen atzean, garai hauetarako altxor paregabe bat ezkutatzen da: inozentziaren eta ontasunaren balioa”.

Pepe Larraz

“Botak jantzi, piraten txanoa egokitu, pintzelak hartu eta berarekin batera garamatza Lucas Ferreyrak, margo akrilikoz sortu duen unibertso zainduan zehar bidaia egin dezagun. Irudimen izugarriko lana da, Terry Gilliam grafiko baten mailakoa”.

Javier Olivares

Instagram:
@lucascucaferreyra

LUCAS FERREYRA (Buenos Aires, 1973) oso gazte hasi zen komikiak egiten DC, Marvel, Dark Horse (AEB), Eura Editoriale (Italia) eta Columba (Argentina) argitaletxeentzat. Brasil hegoaldean dagoen Florianopolis uhartera joan zen bizitzera, eta han, lizentzietako zenbait aldizkaritan kolaboratzen hasi zen, esaterako *Los pingüinos de Madagascar* edo *Kung-fu Panda*. Aldi berean, arte-zuzendari gisa lan egin zuen, eta bere estilo pertsonalena garatu zuen aldizkari eta jaialdietarako enkarguen bitartez. Gaur egun komikigilea, margolaria eta ilustratzailea da, eta haren lanak AEBetan, Frantzian, Brasilen, Argentinan, Ingalaterran, Australian, Zeelanda Berrian, Kanadan edo Espainian argitaratzen dira.

PIQO-PIQO ETA BE-BE YETI DUTE IZENA GURE LAGUNEK, ETA UHARTE MISTERIOTSU BATEAN BIZI DIRA...
EZINEZKO UHARTEAN!
MUNDUKO TOKI HORRETAN BAKARRIK IKUS DAITEKE, BATZUETAN ETA ZORIA LAGUN, EGUZKIA HODEIEN AURREAN.

UHARTEAN BADAUDE PIRATA ERRETIRATUAK, MITO BIZIDUNAK ETA ZENBAIT MUNSTRO...
...BAITA SEKULAKO ALTXOR EZKUTU BAT ETA ONDDO TXIKI OSO JATOR BAT ERE!
ETA KAKTUS BAT!